

Aske izan!



1990ko maiatzaren 17an Munduko Osasun Erakundeak (MOE) homosexualitatea buruko gaixotasunen zerrendatik kanpo utzi zuen. Beraz, aurten 29 urte pasako dira erakunde honek erabaki hori hartu zuenetik. Azken finean, homosexualak gaixoak ginela esateari utzi zionetik. Izan ere, garai luze batean, gaixoak izateaz gain, gaizkileak ere baginen.



Harrezkero, urtero, maiatzaren 17a LGTBQfobiaren Aurkako Nazioarteko Eguna aldarrikatzen dugu. Aldarrikatu esan dugu, eta ez ospatu, aldarrikatzen eta borrokatzen jarraitu beharra dugulako, nahiz eta dagoeneko 29 urte pasa diren.

Berriz ere maiatzaren 17a, alegia. Berriz ere LGTBQfobia mahaiaren gainean, hizpide. Urte hauetan *transbollarika* kolektiboaren errealitateak bilakaera gora-beheratsua izan du. Ezin dugu alde batera utzi trans* pertsonen oraindik ere, formalki zein errealki, egunerokoan gizartearen aurrean sufritzen dituzten estigmatizazio eta presioak.



Hamaika dira gure orientazio sexo-afektiboa eta genero adierazpena askatasunez bizitzeko bideratu zaizkigun deiak denbora honetan. Esku artean duzun hau, esate baterako, eta etorriko direnak. Baina, zoritxarrez, errealitateak oraindik askatasun osoa, epairik eta diskriminaziorik gabekoa, ukatu egiten digu.



Aske bizi! oihukatzen dugu, esaten digute. Bada, aske bizitzeko aukera emaguzue. Estruktrala eta sistematikoa den LGTBQfobiari buruz ari gara. Bai ala bai kalera atera eta osta-osta metro batzuk eginda parez pare aurkitu dugun sistema hetero-kapitalista-txuriari buruz. 29 urte badira gaixoak izateari utzi geniola, baina ofizialki soilik. Azkenaldian, LGTBQ+ kolektiboaren alde aurrerapausoak ematen jarraitu beharrean, atzerakoiak diren diskurtso larriak entzutera ohitzen hasi gara. Eta hauek normalizatzea oso arriskutsua da. Eta iruditzen zaigu gertatzen ari dela.



Guztiok ezagutzen ditugun hainbat eragilek, gorrotoz, amorruez eta haserrez jositako ideologia pozoitsuen bitartez, jomugan jarri dituzte borroka Transbollarikafeministak urteen poderioz lorturiko eskubideak. Ezin dugu alde batera utzi mundu mailan ematen ari den inboluzio bati buruz ari garela. Eskubide urraketek ez dute mugarik, eta horren testigu izaten ari gara mundu zabalean zehar. Erahilketa eta arau errepresiboen ugaritzea ohikoa izaten hasi da. Hauen kontrako borrokek mugarik ez izatea gu guztion esku dago; ezin diegu urteetako sufrimendu eta esfortzuaren gainetik pasatzen utzi.



Berriz ere, maiatzaren 17a, beraz. Zergatik eta zertarako, pentsatu dezakezue askok, oraindik? Inoiz baino zentzu gehiago duelako atzerapausorik ez onartzea, lortutakoa ez galtzea, borrokan jarraitzea eta sufrimenduari izena jartzea. Inoiz baino indartsuago jarraitu behar dugulako kolektiboa osatzen dugunon eta gertu zaudetenon borrokari bidea ematen.



2019ko LGTBQfobiaren Aurkako Nazioarteko Egunaren atarian, hezitzaile, ikasle, irakasle, langile eta familiak aske izan eta sentitu zaitezela eskatu nahi dizuegu, askatasun hori mugatu nahi digutenean intolerantzia eta biolentziaren aurrean borrokan tinko aurkitu gaitzaten.

Hezkuntza komunitatea osatzen dugun guztiok berebiziko ardura eta eragina dugu eskubideen borroka honetan. Haurreskoetatik hasi eta Unibertsitateraino, pausoz pauso, aldaketa txikienarekin ere, LGTBQfobia baztertu eta aniztasunari behar duen tokia ematen jarraitu behar dugu. Gure eskoletan, haurreskoetan, geletan, patioetan zein bulegoetan, erreferenteak falta ditugu. Zure ikasleek behar dituzte. Guk ere behar ditugu. LGTBQfobiari aurre hartu diezaiozun guztion artean.

Aske izan zaitez. Aske izan gaitezen. Eta, batez ere, utzi gaitzazue aske izaten.

Maiatzak 17
LGBTQfobiaren Aurkako Nazioarteko Eguna